

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure negozio ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango diren aktibo nagusiak deskribatzen dira. Gure kasuan enpresaren aktibo garrantzitsuenak informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak, gaitasun komertziala eta asertibitatea dira. Beste zenbait baliabide ditugu; hala nola, produktua fabrikatzeko instalazioa, salmenta puntua, ordenagailua...

Orain gure enpresak dituen baliabideak sailkatuko ditugu.

BALIABIDE FISIKOAK: produktua fabrikatzeko instalazioa, makinak, ordenagailua, sistema informatikoa, salmenta puntua eta produktua egiteko materialak.

BALIABIDE INTELEKTUALAK: diseinuak izango dira gure baliabide intelektualak, kapazitatea daukagulako ondo diseinatzeko, hau da, koloreak diseinatu, zer material aukeratu behar dugun (kalitatea eta prezioa)... Horrez gain, informatika eta webguneak diseinatzeko ezagutzak, enpresa eta merkatuaren arteko erlazioa kudeatzeko gaitasuna, asertibitatea, elkarteak eta patentea ere baliabide intelektualak izango dira.

GIZA-BALIABIDEAK: jantziak egiteko ezagutza duten langileak izango ditugu. Guk adibidez lana zatituko dugu parte berdinetan gutxi gora behera baina Leire arduratuko da onlineko denda aurrera eramateaz eta kamisetak egiteaz Rafaren laguntzarekin, Rafak kudeatuko du material guztia eta material guztia ondo dagoela ziurtatuko du eta Aitorrek denda fisikoan lan egingo du batez ere. Guztiok egin ahal dugu lan hiru ataletan baina batean zentratuko gara hobeto lan egiteko, baina norbaitek laguntza behar badu beste ataletan lan egingo dugu.



FINANTZA BALIABIDEAK: aurrezki batzuk erabiliko ditugu gure proiektua finantzatzeko, ez guztiak, eta falta den dirua mailegu batekin egingo dugu. Mailegua eskatzean interesak edukiko ditugu orduan kontuan hartu behar dugu hau gure produktuak saltzerako orduan interesak ordaindu ahal izateko. Sarrerekin irabazten dugun dirua inbertituko dugu gure enpresa handiagotzeko.